elkarberri 77

Ikerketarako Laguntzen

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

2023ko urtarrila - martxoa / Doako alea

Lege-Gordailua: BI-945-05 - ISSN 2444-4065

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

em | ESCLEROSIS MÚLTIPLE BIZKAIA

ADEMBI

Ariketa fisikoa esklerosi anizkoitza duten pertsonentzat

Doako webinarra onlien

Ekainaren 14

18:00

Informazio gehiago eta izen-ematea

Fernando Lázaro
EFEO-ko batzordekidea

editoriala

Gizakiaren Aroak

Elkargoaren azken batzarrean, beren abentura profesionala amaitu zuten lankideei merezitako omenaldi hunkigarria egin genien, eta, bereziki, tamalez beren bizi-bidaia amaitu zutenei. Bizitzaren zikloa da, hasiera eta amaiera duena.

Gure lanbideak guztion osasuna zaintzen du —zentzu orokorrean— lehen inspirazioa egin berri dutenena ere bai: haurtxoak, haurrak, nerabeak...

Arreta goiztiarraren (AG) esparruan geldituko naiz, gure arlo profesional atsegin eta nabarmenetako bat, azkenaldian etapa zaila igarotzen ari dena. 0-6 urteko adin-tartean, esku-hartzeak berebiziko garrantzia du, ez bakarrik garapen-arazoak dituen haurrarengan (edo arazo horiek izateko arriskua duen haurrarengan), baita familia-eremuan ere, garrantzi handia baitu haurraren etorkizunean.

Ingurune naturalean oinarritutako esku-hartzea da egokiena, ebidentzia zientifikoaren arabera. Familiek helburuak (haien helburuak) ulertu eta horietan parte hartu behar dute, arlo horretan espezializatutako profesionalen laguntzarekin.

AGk osaera konplexua du, eta zaila da laburki deskribatzea. Hiru eremutatik (osasuna, hezkuntza eta gizarte-zerbitzuak) jardun daiteke, nahiz eta AGtzat foru aldundien menpeko egitura hartzen dugun. Egitura horrek baloratu egiten du, eta, hala badagokio, itunpeko AGko zentroetara (esku hartzeko taldeak) bideratzen du, non hainbat diziplina profesionalek egiten duten lan, besteak beste, fisioterapeutek. Aipatutako zentroek ezaugarri jakin batzuk izan behar dituzte (13/2016 Dekretua)[1], eta profesionalek lanbide-kualifikazio zehatz bat egiaztatu behar dute (110/2019 Dekretua)[2]. Familiek egokien etortzen zaien zentrora joatea aukeratzen dute, eta esleitutako arreta doakoa da. Aspaldi, alor horretan diharduten hainbat lankidek eskua altxatu zuten jasotzen duten lan-murrizketa salatzeko, hau da,

ZURE SEGURTASUNA, GURE KONPROMISUA

Lasai egon ahal zara: Fisioterapia Zentro batean sartzen zara

HEMEN: COfpVID pLANa

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

balorazio-taldeek ezarritako saioen murrizketa salatzeko. Kezka horrekin bat datoz AGan inplikatuta dauden hainbat kolektibo profesional, elkarte bat osatzen dutenak. Elkargoak entzuteko lanari ekin dio, eta haurren fisioterapia ikusarazteko komunikazio-kanpaina bat proposatu du. Kanpaina hori laster jarriko da abian. Ekimen horrekin batera, azterketa sakon bat egitea proposatu dugu, eremu horren egoera zehatz-mehatz ezagutzeko. Tartean dauden gainerako figurak inplikatzen diren jakitea falta da, eta fokua eragileen, familiak barne, osotasunera zabaltzen dugu. Hurrengo urratsa, lortutako informazioa aztertu ondoren, ondo arrazoitutako hobekuntzak proposatzea izango litzateke, erakunde arduradunek horren arabera jardun dezaten eta neurriak har ditzaten. Erantzun eraginkorrak lortzeko asko itxaron behar ez izatea espero dugu. Horren araberakoa da familia askoren etorkizuna eta lasaitasuna. Zaindu ditzagun behar bezala eta garaiz zaurgarrienak. Elkargo hau bere elkargokideen ahotsak entzuteko eta gizarte-interesa zaintzeko prest egongo da.

Oharrak (hala badagokio, gehitzeko):
[1] 13/2016 DEKRETUA, otsailaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzkoa.
[2] 110/2019 DEKRETUA, uztailaren 16koa, arreta goiztiarraren arloko lanbide-kualifikazioa egiaztatzeko balio duten tituluen, ikasketen eta konpetentzia profesionalen katalogoari buruzkoa.

aurkibidea

3 editoriala

6 berriak

18 aholkularitza juridikoa

20 iragarkiak

24 elkargokide

Lehendakaritza eta Zuzendaritza
Iban Arrien Celaya
Coordinación Koordinazioa:
Comisión Comunicación, Publicidad y Protocolo
Gauzatzea eta Maketazioa
J&J Creativos
Argazkigintza
ORO
Argitalpena
Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
Hiruhilabeteko argitalpena

Ale honetan argitaratutako edukien kopia osoa edo partziala egitea debekatuta dago, EFEO-ko Gobernu Batzordeko idatzizko berariazko baimena eduki gabe.
Elkarberria eta EFEOa ez dira iragarkien eduki eta irudien arduradunak egiten, ezta argitaratutako artikuluen edukiena, beraien egileen iritzia delako.

Elkargokideei emateko dohainezko alea

Leire Peña eta Iban Arrien

Batzar Nagusia

Ikerketarako 2023ko Laguntzak

Apirilaren 1ean urteko lehenengo Batzarra egin zen Vitoria-Gasteizko Europa Biltzar Jauregian. Beharrezko aurretiazko izapideen ondoren, EFEOko presidente Iban Arrienek lanbidearen egoeraren laburpena xehatua eman zuen, besteak beste **Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Arloko Profesionalen Legea**. Legea duela gutxi onetsi da Euskadin, eta nazio-mailan fisioterapeuten gaitasunak gehien laguntzen dituena da. Halaber, lege hori eredu gisa balio die gainerako Elkargoei eta Kontseilu Nagusiari (CGCFE) Administrazioei aldarrikapenak egiteko.

Osasun Zerbitzu Publiko-Osakidetzako Lehen Mailako Arretan egiten ari den lana aipatu zen (2022ko amaieran 18 fisioterapeuta gehiago egotea), baita Auzitegi Gorenaren epai judizial

Iban Arrien

Edorta Ansoleaga

Borja Salcedo

mesedegarria ere (2021eko azaroaren 3ko 1310/2021 Epaia). Epai horren bidez, azkenean, osasun-profesionalak ez dituzten zentroei eta publizitate iruzurtiaren bidez osasun-zerbitzuak zabaldu nahi zituztenei administrazio-baimenak ezesten ari dira.

Gainera, Ikerketarako Laguntzak aurkeztu ziren, Elkargoaren apustu garrantzitsua direnak, eta Prestakuntza, Irakaskuntza eta Ikerketa Batzordearen bidez Elkargoaren barnean lantzen direnak. Horretaz gain, Menpekotasun, Desgaitasun eta Gizarte-Zerbitzuen eta Kirol, Kirol Egokitu eta Barneratzaile Batzordeen jarduera nabarmenenak aurkeztu ziren.

Era berean, 2022 ekitaldiko balantzea aurkeztu zen, eta kontabilitate-balantzea

Fernando Lázaro

bozkatu zen, aho batez onetsi zena. Amaitzeko, Arriének Fisioterapeuten Elkargoko Kontseilu Nagusiak egiten ari dituen ekintzak, estrategiak eta proiektuak azpimarratu zituen.

Komunikazio Batzordea

Ane Arbillaga

Edurne Andueza

Omenaldia jubilatutako elkargokideei

Batzar Nagusia egin zen egun eta eszenatoki berean omenaldia egin zitzaien 2022. urtean jubilatu ziren elkargokideei.

Topaketaren helburua da **profesional horiek osasun-arlo horren garapen eta zabalkuntzan egindako lana aitortzea**. Aitorpen hori bizitza osoan Fisioterapian aritu ondoren horren alde egiten jarraitzeko eta elkarrekin lan egiteko gazteei lekukoa ematea erabaki duten kideen ordaina da.

Topaketan, saritutakoek zein bertaratuek azken hamarkadetan bizitako aldaketa ugariak nabarmendu zituzten: lanbidearen bilakaera eta garapena zein Fisioterapiaren aitorpen soziala.

Guztira jubilatutako 17 pertsonek jaso zuten omenaldia, eta EFEOren oparia etxera eraman ahal izan zuten, baita senide eta lagunekin lunch sozialarekin gozatu ere. Honako hauek aurrez aurre jaso zuten saria: José Miguel Amostegi Azkue jn., Miren Arantza Zabala Olea and. eta Maite Mingo Landa and.
José Miguel Amostegi Azkue jauna aditua da Fisoterapia Obstetriko eta Uroginekologikoan eta Min Pelbiko Kronikoan. Hainbat lorpen ditu: SEFIPeko presidentea (Espainiako Pelbiperineologiako Fisioterapiako Elkartea), Euskal Herriko Fisioterapeuten Elkarteko presidente ohia, Espainiako Fisioterapeuten Elkargoko presidente ordea, Espainiako zein atzerriko hainbat unibertsitateko irakaslea, hainbat lanen egilea, hizlaria Deustuko Unibertsitatean egin zen Ugalkortasunari buruzko Nazioarteko Kongresuan, eta 2014an Fisioterapiaren Euskadiko I. Sarietako Lanbide-ibilbidea kategorian lehenengo sariaren irabazlea.

Miren Arantza Zabala Olea andreak bere bizitzako 43 urte eman dizkio Fisioterapiari eta minen prebentzioari, eta arreta zuzeneko arloetan bere jarduera-esparrua zabalduz joan da: neurologia, cardiologia, arnasekoa, muskuloeskeletikoa, zoru-pelbikoa edo minaren neurobiologia. Irakaslea izan da Bilboko Ospitale Zibileko Fisioterapia Eskolan; baita "Gaixoen Maneiua" ikastaroan ere, Osakidetzako Langile ez Sanitarioentzako Prestakuntza Programaren barruan, 1994tik 2006ra; eta 2002ko apirilaren 10etik Galdakaoko Ospitaleko Kontseilu Teknikoko eta Zuzendaritza Kontseiluko bokala izan da; eta Galdakaoko Hospitalaren II. Plan Estrategikoa 2005-2009 egiten lagundu zuen. 2019an saria irabazi zuen Fisioterapiaren Euskadiko V. Sarietako Lanbide-ibilbidea kategorian.

Maite Mingo Landa 42 urtez aritu da diziplina honetan, eta garun-paralisiko lehenengo fisioterapeuta aditua izan zen ASPACE Bizkaian lan egiten elkarte honetan hasi zenean, eta ondoren plaza atera zuen eta arlo publikoan aritzeari ekin zion.

Era berean, honako hauek dira bertaratu ezin ziren baina omenaldia merezi zuten kideak: Jon Herrero Erquiñigo jn., Jesús Tolosa Calvo jn., Fernando Maza Diego

José Miguel Amostegi

Miren Arantza Zabala

Maite Mingo

jn., José Ángel Ramos Gómez jn., Miren Garbiñe Aizpurua Odriozola and., Mª Luisa López Cortés and., Mª Luisa Pérez Álvarez de Eulate and., María Iciar Nafarrete Jauregui and., José Estanislao Sarasua Salsamendi jn., Antonio Pazo Domínguez jn., Juan Miguel Sáez de Lafuente Arrausi jn., Mª Cruz Celarain Pérez and., Jon Arruti Arrieta jn. eta Belén González Arriaga and.

Halaber, aintzatespen oso berezia egin zen Emilio Morlán Garridoren omenean. Uztailaren 3an hil zen, eta bizitza osoan jardun zen Fisioterapian, Fisioterapiaren Espainiako Elkartearen kide sortzaile gisa eta Euskadiko delegazioaren zuzendaritza-batzordeko kide gisa 69an eta 97an. 84an unibertsitateko diplomaturaren lehenengo ikasketa-plana egiteko batzordean hartu zuen parte, eta Euskal Herriko lehenengo Fisioterapiaren Eskola sortu zuen batzordeko kide izan zen. 2018an saria irabazi zuen bere lan-ibilbide luzea dela-eta Fisioterapiaren Euskadiko III. Sarietan.

Komunikazio Batzordea

Begola Morlán, Toni Ferrón y Miren Nekane Morlán

Begola Morlán, Toni Ferrón, Maite Mingo, José Miguel Amostegi, Miren Nekane Morlán eta Miren Arantza Zabala

Lehen Mailako Arretako Fisioterapia, hitz egin dezagun komunitarioari buruz

Maiatzaren 12 eta 13an EFEO **Lehen Mailako Arretako Fisioterapiari buruzko IV. Jardunaldi Nazionaletara** joan zen, eta bertan Katalunian Lehen Mailako Arretaren egoera eta garapena ezagutarazi zen.

Jardunaldiko lehenengo mahai-ingurua "Evolución y nuevas perspectivas en fisioterapia de Atención Primaria y Salud Comunitaria" izan zen, María José Ramírez Rosario moderatzailearekin, eta M. Montserrat Inglés Novell, Cristina González del Yerro Valdés, Xavier Surís Armangué eta María Eugenia Sánchez Llanosek parte hartu zuten. Honako hauek izan ziren jorratutako gaiak: Lehen Mailako Arreta eta Arreta Komunitarioen esparru estrategikoari buruzko informazioa, egungo Nazioko Osasun Sistemaren zerbitzu zorro amankomuna, Lehen Mailako Arretan eta Arreta Komunitarioan fisioterapeutak sartzeko programa diseinatzea, eta Fisioterapiara zuzenean sartzeko eskaria.

"Nuevos proyectos y actividades de fisioterapia en Atención Primaria y Salud Comunitaria" izeneko bigarren mahai-inguruaren moderatzailea Lola Luengo Plaza izan zen. Bertan Irene Alonso Estany, Antoni Morral Fernández eta Eva San José Albarracínek hartu zuten parte,

eta Lehen Mailako Arreta eta Arreta Komunitarioa garatu eta ezartzearekin lotutako esperientzia pertsonala kontatu zuten, aurrera egiteko moduak eta horren ondorioak adieraziz.

Hurrengoa "De la camilla a la zapatilla: desarrollo de la actividad comunitaria" izan zen, María Eugenia Sánchez Llanosek moderatua, eta M. Cinta Dufí Subirats eta José Ramón Saiz Llamosasek hartu zuten parte. Gaia profesionala pazienteari eta bere inguruari hurbiltzeko garrantzia izan zen, eta lan egiteko modu horrek ekartzen dituen alde positiboak: gure osasun-sisteman eman beharreko aurrerapauso berria.

Eguna amaitzeko, "Lehen Mailako Arretan eta Osasun Komunitarioan fisioterapiaren espezialitatea" gaiari buruzko mahai-ingurua egon zen, Tirso Docampo Ferreirak moderatua eta Fernando Ramos Gómez, Jaume Martín Royo eta María Badenas Mezquita parte-hartzaileekin.

Jardunaldian hainbat tailer egon ziren: errealitate mota desberdinetan nola jarduteko adibideak azalduz; hauskortasun, erorketa eta min kronikoen kasuetan esku-hartzeko moduak; paziente hipertentsiboetarako ariketak; osasun mentala; sindrome metabolikoa; pelbis-zorua; eta esku-hartze komunitarioa.

Edurne Andueza

Elkargoen arteko eskaera

Gaztela-Mantxako Fisioterapeuten Elkargoak "Iktus Unitateetan lan egiten duten sistema publikoko Neurologiako Zerbitzuei atxikitako Fisioterapeutak identifikatzea" eskatu digu.

Irizpide hori betez gero, nahi dutenek honako helbide elektronikoan identifika dezakete bere burua: contactar@coficam.org.

Gaztela-Mantxako Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

Fisioterapia Goi Mailako Teknikarien Kidegoko Osasun Publikoaren eta Epidemiologiaren Eskalan sartzea

EFEOko Zuzendaritza Teknikoak eta Aholkularitza Juridikoak batera lan egin dute Eusko Jaurlaritzako Funtzio Publikoaren Sailburuordetzari (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila) zuzendutako demanda ofizial batean. Fisioterapia eta bere titulazioa "Fakultatiboen Goi Mailako Teknikarien Kidegoko Osasun Publikoaren eta Epidemiologiaren Eskalan" sartzeko eskatzen da. Zenbatespen horrek aukera emango luke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostu-zerrendan sartzeko.

Argudioen artean, Fisioterapia Tituluari zuzendutako unibertsitate-ikasketak gainditu ondoren lortutako ahalmenak, gaitasunak eta trebetasunak erabili dira, eta jasota dauden beste diziplina batzuek (esaterako, Erizaintza) garatutakoen antzekoak eta/edo parekagarriak direla adierazi da. Beraz, **prestakuntza akademikoa eta lanbide-profila ezagutza- eta jarduera-eremuetara bideratuta daudela defendatzen da, hala nola osasunaren sustapena eta prebentzioa edo gaixotasunen tratamendu eta sendatze funtzionala**; baita osasun publikoaren eta komunitatearen ikuspegian integratuta ere. Horren adibide argia da, zalantzarik gabe, indarrean dagoen curriculum-diseinua, derrigorrezko irakasgaien artean Fisioterapia Komunitarioa eta Osasun Publikoa dituena, baita osasunaren ikuspegi orokorra osatzen duten ikerketa-gaitasunak garatzera bideratutako beste batzuk ere.

Nabarmentzekoa da fisioterapiak duen protagonismoa eta zeregin erabakigarria osasun publikoaren etorkizuneko eskaera sozial, ekonomiko eta sanitarioarekin zuzeneko lotura duten arlo epidemiologikoetan: hauskortasuna, bizitza-luzera, kronikotasuna eta bizi-estilo osasungarrien determinatzaileak, hala nola jarduera fisikoa.

COVID-19aren pandemian erakutsitako eraginkortasunak eta gure kolektiboaren sektore garrantzitsu batek eskainitako jardunak eta portaerak eskariaren tesia bermatzen dute, eta Fisioterapiak arreta komunitarioaren eremu horretan izan beharko lukeen protagonismoaren eredu bikaina da.

Roberto Romero

Elkargoaren akordio berria

Elkargoak, elkargokideentzako onurak etengabe bilatuz, lankidetza-hitzarmen berri bat sinatu du FIXBODY plataformarekin.

FIXBODY ikus-entzunezko edukia duen plataforma bat da, fisioterapia eta berregokitze programak sortzeko, planifikatzeko eta bidaltzeko prozesuak digitalizatu, automatizatu eta optimizatzen dituena.

Honako hauek dira plataformaren puntu garrantzitsuenak:

- LAN-TRESNA profesionalarentzat.
- + 9000 ariketa-bideo dituen EDUKI batekin lan egitea.
- Zerbitzuan PROFESIONALTASUNA areagotzea pazienteei begira.
- FISIOTERAPIAKO ETA BERREGOKITZEKO PROGRAMAK SORTZEA.
- Berreskuratze-prozesuari buruzko berehalako informazioa izatea.
- Lan-kargak KONTROLATZEA, parametrizazio xehatuaren bidez.

Akordio horren bidez, honako hauek dira izan ditzakezuen onurak:

- PSPren gaineko % 40eko deskontua.
- 3 hilabetez plataformara doan sartzea.

Komunikazio Batzordea

POSTGRADOS DE EXPERTO UNIVERSITARIO

universidad SANJORGE GRUPO SANVALERO

fisiofocus

Acreditados por:
Universidad San Jorge
con 375 horas y 15 créditos ECTS

Bilbao

¡DTO EXCLUSIVO!
-200€ en la inscripción
hasta el 02/07

Código:
COL200PV

Fisioterapia del aparato locomotor

Del 27/10/2023 al 06/07/2024

12 seminarios presenciales de fin de semana

Coordinado por César Fernández de las Peñas

Fisioterapia del suelo pélvico

Del 15/12/2023 al 30/06/2024

11 seminarios presenciales de fin de semana

Coordinado por Irene Fernández

¡Reserva tu plaza!

secretaria@fisiofocus.com
615 85 25 76

Kode deontologikoa eguneratzea

Kode deontologikoak lanbide-antolamenduaren funtsezko elementua dira, eta benetako arauak dira, erabateko aplikagarritasun praktikoa eta erabateko autonomia dutenak. Ez dira eduki programatiko, etiko edo morala duten arauak, baizik eta elkargokideek beren lanbidean dihardutenean etengabe jarraitu behar dituzten arauak. Izan ere, arau deontologikoak nahitaez aplikatu behar zaizkie kolektibo guztiei, eta ez ezagutzeak ez du haien erantzukizuna salbuesten.

Etika profesionaleko kodeak ezin ditugu elementu estanko eta betikotzat hartu. Aitzitik, aldaketa sozial eta zientifikoetara egokitu behar dira, eta orain arte ezezagunak ziren eremu deontologikoak jaso behar dituzte, jarduketa-eremu berriak eta denboraren joanarekiko sentikorrak diren elementu berriak sortzearen ondorioz garatutakoak. Zentzu horretan, eta hogei urte baino gehiago indarrean egon ondoren, **beharrezkoa da EFEOk euskal gizartearekin duen kontratu soziala berritzea, jokabide etikoei buruzko arauak eguneratuz**, osasun-laguntza hobetzeko eta pazientearen segurtasuna bermatzeko, zerbitzu fisioterapeutikoaren bikaintasuna ardatz egituratzaile gisa hartuta.

Lehen idazketa bideratu zuten etika eta zorroztasun irizpideen gainean aldaketak finkatzeko konpromiso irmoarekin, EFPEO aldaketa-proiektu honetan murgildu da, eta bertan parte-hartzea eta lankidetza bilatzen ditu. Horretarako, EFEOko Gobernu Batzordeko, Aholkularitza Juridikoko eta Zuzendaritza Teknikoko kide batekin, UPV/EHUko irakasle batekin eta Fisioterapiako ikasle batekin batera gure kode deontologikoa eguneratzeko proiektu ofizial honetan lan egingo duten bi pertsona behar ditugu.

Interesdunek harremanetarako helbide ofizialetara bidali behar dute parte hartzeko proposamena (cofpv@cofpv.org edo r.romero@cofpv.org). Horrez gain, lanbide-profilaren laburpen txiki bat partekatu bidali dute, eta interesa piztu dioten arrazoiak, baita proiektuak sor liezaiokeen edozein zalantza ere.

Roberto Romero

Ikerketarako 2023ko Laguntzak

Elkargoaren azken batzarretan jakinarazi zen moduan, Elkargoak ikerketari bultzada emateko apustua egin du, eta, horretarako, 2022ko abenduaren 17an onetsitako aurrekontuetan **14.000 euro bideratu dira, guztira, ikerketarako laguntzetarako, honela banakatuta**:

- Ikerketarako 2 laguntza: 6.000 euro laguntza bakoitzeko.
- Atzerrian egonaldiak egiteko 2 laguntza: 500 euro laguntza bakoitzeko.
- 2 laguntza argitalpen zientifikoetarako: 500 euro artikulu bakoitzeko.

Era berean, eta laguntza horiek arautzen dituzten oinarrien arabera, honako baldintza hauek ezartzen dira:

- Laguntzak aurkezteko epea maiatzaren 17an hasiko da eta uztailaren 3an amaituko, 15:00etan. (penintsulako ordutegia)
- Behin-behineko ebazpena 2023ko iraila-urria bitartean argitaratuko da.
- Erreklamazio-aldiak 5 egun balioduneko iraupena izango du, behin-behineko ebazpena argitaratzen denetik aurrera.
- Behin betiko ebazpena abenduko Batzarrean argitaratuko da.

Laguntza horiei buruzko informazio guztia eta laguntza horiek eskatzeko behar den dokumentazioa elkargoaren intranetean daude eskuragarri, Ikerketarako Laguntzak atalean.

Ane Arbillaga

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak zalantzan jarri du Administrazioaren ikuspegia fisioterapian intrusismoa sustatzegatik

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala (EFEO) Espainiako Fisioterapeuten Elkargoetako Kontseilu Nagusiak (EFEKN) egindako salaketari batu zaio; Administrazioak herritarren osasuna arriskuan jartzen duela ohartarazi du, lehen arretako pazienteak gimnasioetara bidaltzen dituztelako tratatzera.

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak (EFEO) Administrazioaren ikuspegia zalantzan jarri du, eta Espainiako Fisioterapeuten Elkargoetako Kontseilu Nagusiak (EFEKN) egindako salaketari batu zaio. Ohartarazi du intrusismoa sustatzen ari dela eta herritarren osasuna arriskuan jartzen dela, lehen arretako pazienteak gimnasioetara bidaltzen dituztelako tratatzera.

Kirolaren Konferentzia Sektorialak 2022ko maiatzaren 9an hartutako erabakiaren bidez, ariketak preskribatzeko programak ezarri nahi dira lehen arretako (LA) medikuek eta erizainek Ariketa Fisikorako Unitate Aktiboak izenekoetarantz deribazio fisikoak egin ondoren. Unitate horiek kirol-zentro publikoetan egongo dira, eta gorputz- eta kirol-hezkuntzaren arloko profesionalek zuzenduko dituzte.

Espainian osasun-lanbideetako Kontseilu Nagusiek azaroaren 21eko agirian patologiak zituzten pertsonak plan horretatik baztertzeko eskatu zuten, preskripzioa beti osasun-profesionalen artean egin behar den osasun-egintza bat baita. Era berean, uste da osasun-langileek ezarri behar dutela ariketa pazienteentzako tratamendu gisa.

EFEKNk komunikatu berria egin du, eta EFEO haren aldekoa da. Horren arabera, "***duela 50 urte baino gehiagotik fisioterapeutek pazienteekin ariketa terapeutikoa egiteko legezko eskumena dute, eta pazienteak bere patologia hobetu edo sendatze aldera behar dituen ariketa-programak preskribatu, diseinatu, ezarri, gauzatu eta zuzentzeko prestatuta eta trebatuta daude. Lanbide-jardunbidearen barruan, ariketa terapeutikoa pazienteak tratatzeko erabiltzen den terapiarik ohikoenetarikoa da***".

Fisioterapeutak, ordea, **ez daude** ezarri nahi den **programa horren barnean**, ez ariketa terapeutikoa preskribatzeko, ez eta programa ezartzeari begira beste osasun-profesional batzuek egiten dituzten deribazioak hartzeko ere.

EFEKNren komunikatuak lau arazo oso larri azpimarratzen ditu:

1. **Ekonomikoak**: Europako funtsak egitura parasanitario berria sortzeko inbertitzen ari dira, eta pazienteak fisioterapeutetara bideratzearekin bikoizten da, ohiz lehen arretak hala egin arren. Kontseiluak gogorarazi du zentzuzkoagoa litzatekeela baliabide horiek lehen arreta indartzeko erabiltzea.
2. **Juridikoak**: Medikuek eta erizainek pazienteak gorputz- eta kirol-hezitzaileetara bideratzen badituzte, gerta liteke osasunaren arlokoak ez diren langileek pazienteak tratatzea jarduera fisikoaren bidez, eta egintza hori fisioterapeuten berezkoa da. Zigor Kodearen arabera, lanbide-intrusismoaren delitua izan daiteke. Gainera, osasunaren arlokoak ez diren profesionalengana bideratzeak arau-hauste deontologikoak, datuak babestearen eremukoak eta erantzukizun zibilaren arlokoak dakartza.
3. **Osasun publikoa**: Medikuek eta erizainek gorputz- eta kirol-hezitzaileengana bideratzen dituztenean, tratamendua izan zezaketen pazienteen gaixotasunak areagotu eta larritzen dira, haiek ez baitira osasunaren arloko profesionalak eta ez baitute gaitasunik. Hala, lehen arretako sistemek karga handiagoa dute. Dagoeneko gainezka daude, eta ondorioak larriak dira.
4. **Gardentasuna**: Kontseiluaren komunikatuak zalantzan jartzen du auzi honen jatorria, hasiera batean tresna digital bat garatzeko Europako programa batetik sortu baita. Kirolen Kontseilu Nagusiak, berriz, programa hori prestakuntza-ekimen bihurtu du, Ariketa Fisikorako Unitate Aktiboak sortu eta unitate horietarako profesional arduradunak kontratatzeaz gain.

Horregatik, EFEKNk dio "***zalantzan jartzen duela Europako funtsak behar bezala gauzatzen ari ote diren, prestakuntzaren ehunekoak (oso txikia) funtsen iruzurrezko erabilera ez ote duen ezkutatzen***". Halaber, EFEKNk ez du arrazoi gardenik aurkitzen "***azaltzeko nola eusten dion Kirolen Kontseilu Nagusiak programari halako egiturarekin, osasun-eskumenik gabe eta, beraz, patologiak tratatzeko gaitasunik gabe***".

Horregatik, Espainiako Fisioterapiak eskatzen du **ebazpena eta programa indargabetzea**. Bestela, lanbideak mobilizazioak hasiko ditu herritarrak eraso horretatik babesteko eta Europar Batasunari jakinaraziko dio funts horien erabilera zein den, iker dezan.

Komunikazio Batzordea

Nire oinordekoek zer egin behar dute nire pazienteen historia klinikoekin?

Batzuetan, pertsonen duintasunari eta intimitateari eragin diezaieketen lan-munduko egoera konprometituetan ikusten dugu geure burua (oinarrizko eskubide hori 1978ko Konstituzioaren 18.1. artikuluan jasota dago), edo gure jardun profesionalari buruz inoiz hausnartu ez ditugun kontuez jabetzen gara. Horrela, adibidez, geure buruari galde diezaiokegu zer gertatzen den gure pazienteen historia klinikoekin, gure heriotzaren ondoren, zaintza-betebehar saihestezina duten osasun-datuak islatzen dituztelako. Erantzun erraza emango diegu, batez ere, banaka aritzen diren fisioterapiako profesionalei, antolaketa-zailtasun handienak dituzten egoeran baitaude.

Bada, hobeto oinarritutako iritziaren kaltetan izan gabe, eta 79/2020 zenbakiarekin identifikatutako DBEAren1 kabinete juridikoak emandako txostenaren zentzuari jarraituz, gomendio eraginkorrena da gure konfiantzako lankide bat hitzartzea edo prest edukitzea, gure oinordekoek, DBLO tratamenduaren arduradun gisa, gure heriotzaren osteko historia klinikoen zaintzaren ondoriozko erantzukizunak eta betebeharrak eslei diezazkioten, idatzizko dokumentu2 baten bidez.

Antolaketa-modalitate posible guztien artean, gaur egun hori da eraginkorrena. Eta Kode Zibilaren 659. eta 661. artikuluen edukia gogoratu behar da, gure ondorengoentzat ezuste desatseginak saihesteko:

> "Jarauntsiak bere barruan hartzen ditu norbaiti dagozkion ondasun, eskubide eta betebehar guztiak, haren heriotzaren ondorioz azkentzen ez badira" eta "heriotzaren egitate hutsa dela bide, hildakoaren jaraunsleak haren eskubide eta betebeharren oinordeko bihurtzen dira".

Ohar labur hauek zuen interesekoak izango direlakoan, fisioterapiarekin lotutako gaiak garatzen eta zehazten joango gara. Agur bero bat, EFEOko AJ.

Aholkularitza Juridikoa

[1] DATUAK BABESTEKO ESPAINIAKO AGENTZIA.
[2] DBEOko 28.3. ARTIKULUAN EZARRITAKO BALDINTZAK BETEZ. EUROPAKO PARLAMENTUAREN ERREGELAMENDUA. .

Aholkularitza juridikoko zerbitzuaren helburua da aholkularitza juridikoa ematea elkargokideei eta Gobernu Batzordeari, zuzenean edo zeharka fisioterapiaren jarduera profesionalari lotutako arlo guztietan.

Aholkularitzak zuzenbidearen arlo hauek barne hartzen ditu: zibila, penala, sanitarioa, zehatzailea, administratiboa, lanekoa, fiskala, finantzarioa, higiezinena, komunitarioa, sozietarioa eta merkataritzakoa. Hauek dira elkargokideen artean egon diren kontsulta-gai ohikoenak: fisioterapia-zentroak eskualdatzea eta martxan jartzea, irakaskuntza, hitzarmenak, LAAB, erantzukizun zibileko asegurua, DBLO, PFEZ, lana atzerrian, Osakidetza, Ordainbideen Legea, tarifak, istripuen aurreko asegurua, hitzarmen kolektiboa eta beste elkargo batera aldatzea.

Zerbitzua doakoa da elkargokideentzat, eta aholkularitza barne hartzen du soilik. Hau da, ez du dokumentuak prestatzea, edo aholkularia auzitegi, organismo, ikuskaritza eta abarretan bertaratzea barne hartzen. Horrelakorik egitekotan, aholkulari juridikoak lan horiek fakturatuko lituzke, elkargokidearekin adostutako zenbatekoan.

Aholkularitza-zerbitzu hori erabiltzeko, aldez aurreko kontsulta bat hitzartu behar da elkargoko idazkaritzara deituta, fax bidez edo posta elektronikoz.

Hau da aholkularitza juridikoaren ordutegia:
Astelehena: 17:00-21:00
Asteartea: 15:30-19:30
Ostirala: 9:30-14:00

Letradua: Severino Setién Álvarez jn.
Tel.: 94 402 01 55
Helbide elektronikoa: setien@cofpv.org

administrazioak jakinarazten du

Elkargokide hori:

Administraziotik hauxe gogorarazi nahi dizugu:

- Posta elektronikoa, telefonoa edo bestelako kontaktu-daturen bat berriki aldatu baduzu 944020155 telefonora deituz edo cofpv@cofpv.org helbidera idatziz jakinarazi dezakezu zure fitxa eguneratu dezagun.

- Gogoratu Elkargoak **lan poltsa bat** mantentzen duela, interesa duen elkargokide orok eman dezake izena, eta Fisioterapeuta lanpostu bat betetzeko beharra duenei ematen zaie.

- Fisioterapia zentroa daukazuen elkargokideoi gogorarazten dizuegu, zentroa EFEOak onartua daukala ziurtatzen duen **Plaka** eska dezakezuela; halaber, **baimena** ere deskarga dezakezue gure Webgunean, honela, zure zentroko datuak zabaldu ahal izateko. Fitxa hau beteta, **sinatuta eta zigilatuta** igorri behar diguzue, **posta arruntaz, (dagokion Osasun Sailaren Lurralde Ordezkaritzak emandako baimenaren fotokopiarekin batera)**.

- Jakinarazi nahi dizugu, Eusko Jaurlaritzak ezarritako **Pazienteen Segurtasun** estrategiak direla eta, zentro bakoitzean zuzendaritzak gutxieneko **Segurtasun Plan bat** egin behar duela, aztertzeko zein segurtasun-prozedura eta -pauso eman behar diren zentroan pazienteen osasunerako arriskuak murrizteko. Informazio gehiago izatekotan eta galderetarako posta elektroniko honetara idatzi dezakezu: seguridadpaciente@cofpv.org edota Elkargoko egoitzara deitu dezakezu telefono honetara: 944020155.

EFEOko Administrazioa





iragarki-taula

TRASPASO CONSULTA BILBAO CENTRO
O VENTA DE MOBILIARIO.
Se traspasa consulta de fisioterapia en el centro de Bilbao completamente amueblada con camilla, muebles, armario para guardar la ropa, perchero , mesa escritorio y tres sillas.
También hay material de fisioterapia destinada a rehabilitación de suelo pélvico como sondas, papel de camilla, lubricante, cubresondas, fitball, y esterilla.
Se puede disponer de la consulta a partir del 1 de Abril.
También vendo mobiliario aparte.
Interesad@s ponerse en contacto al siguiente teléfono: 649164882. Natalia.

Se alquila sala en clínica de fisioterapia situada en el centro de Vitoria, a una persona con ganas de emprender una consulta por su cuenta. La sala está equipada con una camilla hidráulica. Libertad de horario, días de la semana y en la forma de trabajar. Posibilidad de realizar un alquiler mensual o a porcentaje acordado con el centro.
La clínica está situada próxima a paradas de bus y tranvía.
Interesados/as enviar mail a: info@laespalda.es

Se alquila consulta de fisioterapia en el centro de San Sebastián en horario de lunes y Jueves todo el día. Totalmente equipada, una sala de espera con baño más sala de tratamiento. Precio: 380€ gastos incluidos.
Interesados contactar en el 652751810.

SE TRASPASA CLINICA DE FISIOTERAPIA
EN FUNCIONAMIENTO
Clinica de Fisioterapia ubicada en Barakaldo, consta de dos salas de tratamiento, baño adaptado y gimnasio para clases grupales.
Para más información contactar traspasoclinicafisio@gmail.com

Se vende por jubilación, camilla no regulable en altura, de 3 piezas por 300€.
Interesados llamar al 628180847

Garatu Haurraren Garapenerako Zentrua es un espacio interdisciplinar de atención infanto juvenil. Contamos con la homologación como centro sanitario polivalente y de Atención Temprana. Desde hace varios años contamos en el equipo con una logopeda, una neuropsicóloga y una terapeuta ocupacional. Actualmente queremos incorporar la fisioterapia como oferta asistencial. Por un lado, porque en ocasiones los pacientes que atendemos en otros servicios lo necesitan y por otro porque trabajando en el ámbito infanto-juvenil y específicamente en el ámbito del desarrollo nos parece una figura esencial. Es por ello que ofertamos la posibilidad de alquilar un espacio a un fisioterapeuta pediátrico. Se trata de una sala de 4,5mx3,7m, está equipada con colchoneta y una espaldera. Así como la posibilidad de usar colgar algún columpio por los sistemas de suspensión. El alquiler puede realizarse por días sueltos o semanas completas. El alquiler sería por un periodo de un año y prorrogable. El centro está situado en el centro de Eibar (calle Isasi) y está a pie de calle. Cuenta con varias salas y despachos. Todas ellas exteriores y con buena iluminación. Cuanta también con varios espacios de aparcamiento gratuito cercanos así como de un aparcamiento adaptado a pocos metros. El centro tiene un WC para usuarios totalmente adaptado y un WC para los profesionales, un espacio para sala de espera y pasillo donde se pueden dejar los carritos o sillas de ruedas. Además contamos con una sala de terapia más grande que también se puede usar para realizar talleres para padres que se podría alquilar de manera puntual.
En caso de estar interesados os podéis poner en contacto a través de este email zuzendaritza@garatu.org o por teléfono, 943254616.

lan eskaintzak

araba

Cargo/Puesto: FISIOTERAPEUTA
Lugar de trabajo: VITORIA
Departamento: FISIOTERAPIA
Clase de Contrato: FISIOTERAPIA
Horario: Jornada a convenir por ambas partes
Experiencia: Se priorizara experiencia en obstetricia y suelo pélvico. Además de terapia Manual
Regimen de vacaciones: A convenir - 30 dias
Convenio laboral: General del trabajador
Requisitos Adicionales: En AKARI buscamos fisioterapeuta. Se valorará formación y experiencia en suelo pélvico - obstetricia y Terapia Manual. Interesados estaremos encantados de recibir vuestro CV y conoceros en la entrevista para formar parte del equipo.
Datos de contacto: akari@akaribienestar.com

Cargo/Puesto: Fisioterapeuta
Lugar de trabajo: Ergoactiv Escuela de Espalda
Departamento: Fisioterapia
Clase de Contrato: Indefinido
Horario: Jornada completa
Experiencia: 1 año
Regimen de vacaciones: 31 días naturales + puentes + días por antigüedad
Requisitos Adicionales: Buscamos fisioterapeuta para integrarse en nuestro equipo. Se valora formación en ejercicio terapéutico y abordaje del dolor crónico.
Datos de contacto: Enviar CV a eneko.ergoactiv@gmail.com

Cargo/Puesto: Fisioterapeuta
Lugar de trabajo: Vitoria
Departamento: Fisioterapia
Clase de Contrato: Indefinido
Horario: Jornada completa, viernes horario de mañana
Experiencia: Mínimo 2 años
Regimen de vacaciones: 22 días laborales
Requisitos Adicionales: Se busca incorporar fisioterapeuta a centro de fisioterapia y rehabilitación, con formación en terapia manual, ejercicio terapéutico y pilates. Se valorará formación en neurorrehabilitación y abordaje de dolor crónico, así como otras formaciones adicionales.
Datos de contacto: info@neuronfisioterapia.com

bizkaia

Cargo/Puesto: Fisioterapeuta
Lugar de trabajo: Residencia de la tercera edad
Departamento: sanitario
Clase de Contrato: eventual a tiempo parcial
Horario: 10.00 a 13.00 de lunes a viernes
Experiencia: 1 año
Regimen de vacaciones: finiquitadas según contrato
Convenio laboral: convenio residencias privadas de la tercera edad en Bizkaia
Requisitos Adicionales: Buena actitud y con ganas de trabajar, comprometido con los usuarios y el buen hacer
Datos de contacto: 94 445 62 50

Cargo/Puesto: Fisioterapeuta
Lugar de trabajo: Zalla
Departamento: Fisioterapia
Clase de Contrato: Media jornada
Horario: a covenir
Experiencia: no se precisa
Regimen de vacaciones: si
Requisitos Adicionales: Se necesita fisioterapeuta para empezar en junio, en principio seria para meses de verano.
Datos de contacto: amagoia.fisioterapia@gmail.com

Cargo/Puesto: Fisioterapeuta
Lugar de trabajo: ABADIÑO
Departamento: ÁREA MÉDICA
Clase de Contrato: Interinidad
Horario: Lunes a Jueves: de 8 a 16. Viernes: de 8 a 15
Experiencia: No se requiere
Regimen de vacaciones: Contrato de interinidad
Datos de contacto: jgerman_radigales@fremap.es

Cargo/Puesto: FISIOTERAPEUTA
Lugar de trabajo: RESDIENCIA COLISEE LARRAURI
Departamento: RESIDENCIA
Clase de Contrato: SUSTITUCIÓN TEMPORAL
Horario: 09:45 A 13:00H DE L-V (POSIBLE NEGOCIACIÓN HORARIO TARDES)
Experiencia: NO PRECISA
Regimen de vacaciones: 15 DÍAS, COMIENZO EL 12/06/2023
Convenio laboral: CONVENIO RESIDENCIA PRIVADAS BIZKAIA
Datos de contacto: 946 745 307

Cargo/Puesto: FISIOTERAPEUTA
Lugar de trabajo: zalla
Departamento: Fisioterapia
Clase de Contrato: Indefinido
Horario: Tardes con posibilidad de algunas mañanas
Experiencia: Se valorará positivamente
Regimen de vacaciones: 30 dias/año
Requisitos Adicionales: Buscamos fisioterapeuta con ganas de formar parte de nuestro equipo. Atendemos únicamente a pacientes privados e impartimos clases de escuela de espalda a grupos reducidos (Hipopresivos, Pilates, ejercicio terapéutico).Valoraremos conocimientos en osteopatía, obstetricea y ejercicio terapéutico.
Datos de contacto: Interesad@a enviar cv a fioss@hotmail.es o ponerse en contacto en el 605 757 418

Cargo/Puesto: Fisioterapeuta
Lugar de trabajo: Santutxu / Bilbao
Departamento: Fisioterapeuta
Clase de Contrato: Indefinido
Horario: 16:00h / 20:00h - 15.30h/20:30h
Experiencia: Se valorará experiencia
Regimen de vacaciones: 30 Naturales
Datos de contacto: 634290774 Att Aimar / Via mail fisioterapiavidaon@gmail.com

Cargo/Puesto: Fisioterapeuta
Lugar de trabajo: Ondarroa
Departamento: Rehabilitación
Clase de Contrato: Autónomo o trabajador por cuenta ajena (posibilidad de ambas opciones)
Horario: Jornada partida (8:00-13:00 // 15:00-18:00) Se podría hablar
Experiencia: No se requiere
Regimen de vacaciones: Acordaremos según el contrato
Otras consideraciones: Es una clínica de rehabilitación en la que trabajamos tanto con seguros privados como con particulares, sobre todo con pacientes de traumatología.
Datos de contacto: janibarluzea@gmail.com

Cargo/Puesto: FISIOTERAPEUTA
Lugar de trabajo: RESIDENCIA COLISEE INDAUTXU
Departamento: FISIOTERAPIA
Clase de Contrato: JORNADA COMPLETA
Horario: LUNES A VIERNES (9:00-14:00 y 16:0-18:00)
Experiencia: NO NECESARIA
Regimen de vacaciones: SEGUN CONVENIO
Convenio laboral: CONVENIO RESIDENCIAS BIZKAIA TERCERA EDAD
Requisitos Adicionales: Se necesita fisioterapeuta en Residencia de la tercera edad Colisee Indautxu, situada en Bilbao, para sustitución de vacaciones los días 16 de agosto al 15 de septiembre de 2023 (ambos inclusive). Horario de lunes a viernes de 9:00 a 14:00 y de 16:00 a 18:00. Trabajo de fisioterapeuta tanto con residentes permanentes en el centro como trabajo en la unidad de recuperación funcional.
Datos de contacto: Interesad@s mandar CV a fisioindautxu@colisee.es

Cargo/Puesto: FISIOTERAPEUTA
Lugar de trabajo: CALLE RIBERA, 5
Departamento: FISIOTERAPIA
Clase de Contrato: INDEFINIDO
Horario: TARDES
Experiencia: NO NECESARIA
Regimen de vacaciones: SEGUN CONVENIO
Convenio laboral: RESIDENCIAS
ADRIAN SAENZ MOLES direccion.ribera@domusvi.es

Cargo/Puesto: Fisioterapeuta
Lugar de trabajo: Centro de Dia Trapaga
Departamento: Centro de Día
Clase de Contrato: Indefinido
Horario: 4,5 horas a la semana: lunes y miércoles
Experiencia: no necesaria
Regimen de vacaciones: Contrato indefinido
Convenio laboral: Centros de la tercera edad y convenio colectivo sectorial para Bizkaia
Requisitos Adicionales: Horario preferente de 11:15 a 13:30. Valorar otras disponibilidades.
Datos de contacto: miglesia@eulen.com

gipuzkoa

Cargo/Puesto: FISIOTERAPIA
Lugar de trabajo: ARRASATE
Departamento: FISIOTERAPIA
Clase de Contrato: PARCIAL
Horario: DE TARDE
Experiencia: NO
Regimen de vacaciones: SEGUN EL CONTRATO
Datos de contacto: 943503899 / fisioaiur919@gmail.com

Cargo/Puesto: Fisioterapeuta
Lugar de trabajo: Irun
Departamento: Fisioterapia
Clase de Contrato: Jornada parcial (con posibilidad de aumento progresivo
Horario: 16 h a 20h de lunes a viernes.
Experiencia: 2 años
Regimen de vacaciones: 30 días naturales
Requisitos Adicionales: Como funciones principales, el ejercicio de las actividades propias del fisioterapeuta asumiendo además tareas de gestión y organización.
Requisitos:
Estar en posesión del grado o diplomatura en fisioterapia
Experiencia previa de dos años en la gestión y el trabajo con grupos en el ámbito de ejercicio terapéutico y/pilates.
Experiencia previa de 2 años en ecografía músculo esquelética;y técnicas de fisioterapia invasiva
Buscamos una persona con capacidad de adaptación, proactiva y dinámica con capacidad de trabajo en equipo y que sepa empatizar con el paciente, y que busque un proyecto a largo plazo en el que se sienta motivado/a y disfrute de su trabajo.
Ofrecemos:
Incorporación como fisioterapeuta . La jornada de trabajo será a tiempo parcial(20 horas) con objetivo de aumento progresivo en función de la demanda de servicios(El objetivo jornada completa). Las condiciones económicas serán acordes con la experiencia y los conocimientos del candidato/a. (aproximadamente 24000 euros /año brutos en caso de jornada completa)
Se iniciaría en septiembre 2023.
Datos de contacto: Alberto Rey. Clinicaredi@gmail.com

Cargo/Puesto: Fisioterapeuta
Lugar de trabajo: Irun
Departamento: PRL - Benefits
Clase de Contrato: Prestación de servicios
Horario: 4h semanales
Experiencia: 2 años de experiencia
Regimen de vacaciones: A convenir con el candidato
Requisitos Adicionales: Se busca fisioterapeuta para prestar sesiones de fisioterapia en una empresa. Sesiones totalmente personalizadas e individualizadas a las necesidades de cada paciente. Principalmente, sesiones de terapia manual con posibilidad de algo de ejercicio terapéutico. Precio por hora de 25€.
Otras consideraciones: Fisioterapeuta con +2 años experiencia y que esté dado de alta en el régimen de autónomos.
Datos de contacto: Albert Valls - albertvalls@fisioreact.com

Cargo/Puesto: Fisioterapeuta
Lugar de trabajo: Donostia-San Sebastián
Departamento: Fisioterapia
Clase de Contrato: Media jornada, contrato indefinido
Horario: De 10 a 14 hs. NEGOCIABLE
Experiencia: No imprescindible
Regimen de vacaciones: 30 días naturales
Otras consideraciones: Se ofrece puesto de trabajo a media jornada en centro de rehabilitación integral en Donostia. Horario a convenir. Se valorará positivamente formación y experiencia en neurorehabilitación, terapia manual y ejercicio terapéutico, al igual que el razonamiento clínico aplicado a cada paciente, y la motivación personal por aprender y trabajar en equipo.
Datos de contacto: Interesadxs contactar a través de: lortu@lorturehabilitacion.com

elkargokide berriak

Euskadiko Fisioterapeuten
Elkargo Ofizialak
ongietorria eman nahi die
elkargokide berriei
Ongi etorri!

araba

1928 Unai Diez Ozaeta
2031 Aixona Sáez de Ocariz Albizu

bizkaia

4197 Jon Ander Irigoien Cortina
4201 Bernardita Jasmin Haddad Escuti
2628 Cristina Herrera Carcedo
3917 Gorka Pérez Goikoetxea
4204 Andrea González Sarabia
4203 Irati Ors Muniain
2458 Ángela Gómez Poo
4207 Manuel Martínez Martínez
4208 Gonzalo Hernando De Antonio

gipuzkoa

2061 Itsaso Olasagasti Ruiz de Gauna
4198 Yousra Berrich Boulerhcha
0985 Maitane Uzkudun Irazusta
2403 Jone Agirre Zubikarai
4206 Lander Berraondo Almaraz
3519 Luca Asier Pini Albisu

beste batzuk

4199 Pablo García Areso
4200 Allande Barreix
4205 Martín Otero López
4202 Paula Hidalgo Garijo
4209 Joaquin Guerra Higuero

Oharra: 2023ko otsailaren 21ean eta ekainaren 22an bitartean 22 kide berri elkartu dira elkargora.
Horrenbestez, Elkargoak 3.343 kide ditu gaur egun.

Te lo mereces
por ser fisioterapeuta del País Vasco

Te mejoramos el precio de todos tus seguros* y además te damos...

¡hasta **80€** de regalo!

Oferta exclusiva para ti y tu familia directa por ser miembro del Colegio de Fisioterapeutas del País Vasco

cmb bizkaiko medikuen elkargoa colegio de médicos de bizkaia
SEGURMEC ASEGURU-ARTEKARITZA S.M.U. CORREDURÍA DE SEGUROS S.L.U.

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
Euskal Herriko Fisioterapeutaren Elkargo Ofiziala

Auto · Moto · Hogar · Consulta

ZURICH

Llama ahora
94 435 46 00
o contáctanos en este correo: segurmec@cmb.eus

*La mejora de precio será de al menos un 5% respecto al precio de renovación presentado a Zurich. Adicionalmente la o el cliente recibirá un incentivo económico adicional de hasta 80 euros según el producto y modalidad contratada. El pago del incentivo económico adicional se realizará a través de una transferencia bancaria a la o el cliente pasados 90 días desde la contratación. Promoción válida para nuevas contrataciones con fecha de efecto entre el 01 de Febrero de 2023 y el 30 de Junio de 2023 para pólizas de: Auto, Moto, Hogar y Negocios (Consulta condiciones). Los beneficios mejora de precio e incentivo económico adicional son independientes entre sí, y cada uno de ellos tiene condiciones específicas que se recogen en https://colectivos.zurich.es/promocion2023. Estos productos pertenecen a Zurich Insurance plc, Sucursal en España. El mediador del contrato de seguro es SEGURMEC CORREDURÍA SE SEGUROS con NIF B48503130 y con domicilio en C/ Lersundi Kalea, 9, 48009 Bilbo, Bizkaia.

Imagen de Freepik

HAUR FISIOTERAPIA ZORAGARRIA DA

LA FISIOTERAPIA INFANTIL HACE MARAVILLAS

lafisioterapiainfantilhacemaravillas.com